

## HITANOA NOLA OSATZEN DEN

\*Arau nagusia: neutroko adizkiaren amaiera –k/n pertsona markak jarri behar dira

Adib: noa>noak/n  
nago>nagok/n  
zaizkie>zaizkiek/n

\*Aldaketa osagarriak

- Aditz erroaren amaieraren arabera, loturazko bokala erantsi behar da: -e- singularrean, -a- pluralean  
Adib: nabil>nabilek/n goaz>goazak/n
- Orainaldian, 3. pertsonaren hasierako D- pertsona marka Z- bihurtzen da, IZAN eta UKAN aditzetan izan ezik:  
Adib: dezake>zezakek/n diote>ziotek/n  
Baina: da>duk/n du>dik/n daiteke>daitekek/n
- IZAN aditzak UKAN aditzaren egituraketa hartzen du (salbuespenekin)  
Adib: naiz>nauk/n ginen>gintuan/nan litzateke>lukek/n  
Baina: daiteke>daitekek/n
- UKAN aditzaren –u- erroa EDINen –i- bihurtzen da  
Adib: dute>ditek/n ditu>ditik/n
- Adizki trinkoetan, loturazko bokala A ala E izatea aukera daiteke (aukera mantendu behar da)  
Adib: dago>zagok/n-zegok/n  
darabil>zarabilek/n-zerabilek/n

\*Arau nagusia bi kasutan ez da betetzen

- Lehenaldian: iraganaren –n marka izango da azkena, eta alokutiboaren –n/k marka honen aurretik joango da, beharrezko aldaketa fonetikoarekin.  
Adib: zitzaidan>zitzaidaan/nan nien>niean/nan

- Orainaldian, Nor-nork eta nor-nori-nork kasuetan, nork 1. pertsona denean (sg/pl) eta nor 3. pertsona denean (sg/pl), nahasketarik ez gertatzeko, alokutiboaren marka nork kasuaren markaren aurrera ekarriko dugu, beharrezko aldaketa fonetikoarekin.  
Adib: dugu>\*diguk/n-diagu/dinagu  
dier>\*ziedak/n-zieat/nat

[www.haritza.eus](http://www.haritza.eus)